

EKOSCAN EZARTZEARI ESKER LORTUTAKO INGURUMEN HOBEKUNTZAK

EKOSCAN metodologia bat da, ahalik eta hondakin, emisio eta isuri gutxien sortu eta lehengaiak, gai lagungarriak, ura eta energia ahalik eta eraginkorren erabiltzeko ekintzak ezartzeko helburua duena.

Carlos Santamaria zentroak metodologia hau aplikatu du eta, horren ondorioz, gure jardueraren ingurumen eragina murriztea ahalbidetu duten hainbat ekintza gauzatu dira.

EGINDAKO EKINTZA	LORTUTAKO HOBEKUNTZA
➤ Hondakin organikoen bilketa selektiboa. ➤ Idazteko materiala birziklatu.	➤ Hondakin organikoaren birziklatze tasa 8,3% gehitu da . ➤ Idazteko materialaren birziklapena irailean martxan jarri da eta oraindik ez dago daturik hobekuntza neurtzeko.
2014an egindako ekintzak ➤ 50 lanpara halogeno kendu eta LED argia jarri da komunetan. ➤ Presentzia detektagailua (34) eta argitasun sentsorea (1) jarri dira. ➤ Gune batzuetako argiak piztuta izateko ordutegia murriztu da. 2015ean egindako ekintzak. ➤ Presentzia detektagailua (10) komunetan ➤ LED argia jarri igogailuetan .	➤ Energia elektrikoaren kontsumoa % 8,86 murriztu da. Aurrezkia: 19.108€ ➤ CO₂-ren isuri atmosferikoaren murrizketa 31602Kg izan dira
➤ Uharka betetzeko balbulari 2 buia jarri zaizkio eta betetzeko maila kontrolatzeko sistema bat urak gainezka ez egin eta garajea urez ez betetzeko.	%100 murriztu da uharka betetzeko suteen aurkako ur kontsumoa.
➤ Fotokopiagailu berriak jarri dira fotokopiatu eta eskaneatzeko funtzioarekin. ➤ Langileek erabiltzen diren inprimagailuak konfiguratu egin dira kopiak zuri-beltzean inprimatzeko.	➤ %21 murriztu da barrurako paperaren kontsumoa. ➤ %65,51 murriztu da kolorez egindako kopiak.

EGINDAKO EKINTZA

LORTUTAKO HOBEKUNTZA

INGURUMENAREKIKO SENTSIBILIZAZIOA

- Hondakin organikoa marroi kolorez margotu da hobeto identifikatzeko eta horrela hondakinen bereiztea hobetzeko.
- Edukiontzietara hondakinak botatzeari buruzko kartelak jarri dira edukiontzi bakoitzera bota beharreko hondakinak identifikatzen laguntzeko.
- 5 fotokopiagailuen ondoan argibideak jarri dira fotokopiak egin beharrean agiriak digitalizatuta gordetzeko, toner eta paperaren kontsumoa murriztu ahal izateko.
- Informazioa bidali da "Idazketa elementuak birziklatzeko programa"ko parte hartzeari buruz. Programa doakoa da eta irekia erakunde publikoei dago, eta onartutako hondakin bakoitzeko diru zenbateko txikia ematen zaio aukeratzen den irabazi asmorik gabeko erakundeari. Kasu honetan, Síndrome de Dravet Fundazioari eman zaio.
- Idazteko materialen hondakinak birziklatzeko edukiontzietan kartel informatiboa jarri dira bota beharreko hondakinen informazioarekin.
- "I Jornadas de Bibliotecas del G9 sobre Buenas Prácticas en Atención a Espacios y Usuarios" direlakoan barruan Ekoscan aurkeztu da ingurumenarekiko praktika solidario on gisa.
- Poster bat egin da Carlos Santamaria Bibliotekan egindako Ekoscan proiektuaren laburpena jasoz.
- Gipuzkoako Campuseko Liburutegian poster informatibo bat egin da Ekoscan proiektuan garatutakoaren berri emateko.
- Posta elektronikoaren bidez zoriondu zaie liburutegiko langileei barruko fotokopien zenbakia murrizten laguntzeagatik.

Azaroa 2016

Javier Monzón
Zuzendaria